**2017KO OTSAILAREN 6AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- 2017KO UDAL AURREKONTU EKONOMIKOAREN ONARPENA.

2.- JASOTAKO IDATZIAK.

3.- GALDE ERANTZUNAK.

**ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

**ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

**ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).
Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

**EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

**1.- 2017KO UDAL AURREKONTU EKONOMIKOAREN ONARPENA.**

2017ko aurrekontuaren espedientearen berri ematen da.

Idazkariak, onartzea proposatzen den aurrekontua osatzen duten agirien azalpena egiten du: kapitulukako laburpenak, gastu eta sarreren partidakako aurrekontua, zorpetze eranskina, laburpen ekonomiko funtzionala, Alkatearen memoria, inbertsioen eranskina, transferentzien eranskina, dirulaguntzak arautzeko prozedura, aurrekontua gauzatzeko udal araua, ekonomi eta finantza txostena, onarpen prozedura txostena, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Era berean aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostenaren berri ematen da.

Era berean, Idazkari-kontuhartzaileak, udal aurrekontu ekonomikoan eragina duten zenbait lanpostuei buruzko ohartarazpena egin du.

Alkateak, espedientean jasotakoaren arabera, eta dagokion balorazioa egin ondoren, lanpostuen zerrendan hutsik geratu diren garbitzaile lanpostuen amortizazioa bideratzeko proposamena egiten du. Zentzu honetan, garbiketa zerbitzu horiek kanpoko enpresa baten bitartez burutzen direla adierazten da, zerbitzuak egoki, etengabe eta ekonomikoki ongi bideratzen direla iritziz (Idazkariak, kontratazio horrekiko legezko aipamena eginda duela adieraziz ere).

Aurrekontu-espedientean jasotakoaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- 2017ko Udaleko Aurrekontu Orokorreko jarraian azaltzen den gastu eta sarreren kapitulukako laburpena hasiera batez onartzea:

**Gastuak**

| Kapitulua | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 385.793,87 |
| 2 | Ondasun arrunten erosketa | 1.128.677,09 |
| 3 | Finantza gastuak | - |
| 4 | Transferentzia arruntak | 296.300,29 |
| 6 | Inbertsio errealak | - |
| 7 | Kapital transferentziak | 407.598,75 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | - |
| 9 | Pasibo finantzarioak | - |
| | **TOTAL** | 2.218.370,00 |

**Sarrerak**

| Kapitulua | Izenak | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko Zergak | 345.157,00 |
| 2 | Zeharkako Zergak | 84.102,58 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 298.674,13 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.361.301,95 |
| 5 | Ondarezko sarrerak | 35.728,00 |
| 6 | Inbertsio errealak besterenganatzea | - |
| 7 | Kapital transferentziak | 93.406,34 |
| 8 | Actibo finantzarioak | - |
| 9 | Pasibo finantzarioak | - |
| | **TOTAL** | 2.218.370,00 |

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Hirugarrena.- Aurrekontuaren onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-Oholean 15 egunez jendaurrean jarri, epe horretan interesatuek aztertu eta ondo deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurrean egoteko epea inolako erreklamazio edo oharpen jaso gabe iragango balitz, akordio hau behin-betikoa bihurtuko litzateke.

Laugarrena.- Behar den garaian, aurrekontuaren kopia ziurtatua Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara igorri.

**2017. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.**

2017. urterako Udal honetako plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren berri ematen da.

Adierazitakoa ikusirik, eta 2017ko Plantila Organikoan eta Lanpostuen Zerrendan jasotakoa aztertu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Hutsik geratu diren bi garbitzaileen lanpostuak amortizatuz, Udal honetako 2017ko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda jarraian adierazten den bezala onartzea:

## 2017.URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

| LANBIDEAREN IZENA | LANPOSTU KOPURUA | TALDEA (1) | EGOERA |
|---|---|---|---|
| IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA<br>Idazkari-Kontuhartzailetzako azpieskala | | | |
| IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/ | 1 | B | H |
| ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA<br>Administrarien Azpieskala | | | |
| ADMINISTRARIA | 1 | C | J |

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

| **Lanpostuaren izena** | **Lanpostu kopurua** | **Lanbide maila** | **Grupo** (1) | **Egoera** |
|---|---|---|---|---|
| Euskara eta Kultura teknikaria | 1 | 2 | B | F |
| Zeregin Anitzetako Ofiziala | 1 | 9 | D | F |
| Gizarte Laguntzailea | 1 | 2 | B | H |
| Liburuzaina | 1 | 7 | C | H |

(1) 6/89 Legeko 43. Atala
EGOERA-SITUACIÓN
J: Jabea
F: Finkoa
H: Hutsik

## *2017. URTERAKO UDAL HONETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA*

| Ordena zenbakia Nº de orden | Izena Denominac. | Lanpostu kopurua Nº de puestos | Taldea/Grupo | Lanpostu mota Tipo de puesto | Hornikuntza era Forma de | EUFALEBA maila Nivel ARCEPAFE | Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias: Dest. Osag. Maila. Dekretu Nivel | Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias: Osagarri espezifikoa Complemento específico | Dedikazioa Dedicación | Bulegoa Dependencia | Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak / Requisitos exigidos para su desempeño — Adskripzioa Adscripción: Taldea edo eskala | Adskripzioa Adscripción: Azpieskala Subescala | Adskripzioa Adscripción: Klasea Clase | Hizkuntz eskakiz. Perfil lingüistico: Koefizientea Coeficiente | Hizkuntz eskakiz. Perfil lingüistico: Derrigortasun data Fecha de | Exijitutako titulazioa Titulación exigida | Berariazko merezimenduak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATURIKO LANPOSTUAK | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | Idazkari-Kontuhartzailea | 1 | B | S | C | 19 | 24 | 15329,40 | 100 | I-K | GN | IK | 3 | 4 | 96-10-30 | Z/PZS/EE. Dp | (1) |
| 2 | Administraria | 1 | C | N | C | 13 | 18 | 12.756,96 | 100 | I-K | AO | AA | - | 2 | 94-12-31 | GB | |
| PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | Secretario-Interventor | 1 | B | S | C | 19 | 24 | 15.329,40 | 100 | S-I | HN | SI | 3 | 4 | 30-10-96 | Dp.D/CPS/EE | (2) |
| 2 | Administrativo | 1 | C | N | C | 13 | 18 | 12.756,96 | 100 | SI | AG | AA | - | 2 | 31-12-94 | BS | |

| Ordena zenbakia Nº de orden | Izena Denominación | Lanpostu kop.urua Nº de puestos | Taldea/Grupo | Kategoria profesionala Categoría profesional | EUFALEBA maila Nivel ARCEPAF | Osagarri maila Compl. destino | Osag. espezifikoa Complemento específico. | Dedikazioa Dedicación | D.B.O. C.D.E. | A.B.O.P. C.P.T. | Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño — Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico: Koefizientea Coeficiente | Derrigortasun data Fecha de preceptividad | Titulación exigida Exijitutako titulazioa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | Euskara eta Kultura. Tek. | 1 | B | 2 | 16 | 21 | 12.858,48 | 100 | - | | 4 T.G. | 94-12-31 | D |
| 2 | Zeregin anitzetako ofiziala | 1 | D | 9 | 10 | 15 | 11.757,60 | 100 | %25 | %2 | 2 | 00-12-31 | EG/B1 GB |
| 3 | Gizarte laguntzailea | 1 | B | 2 | 14 | 19 | 4.787,40 | 43,99 | - | | 3 | 01-01-01 | Dp. T.S. |
| 4 | Liburuzaina | 1 | C | 7 | 9 | 14 | 2.616,24 | 27,76 | | | 3 | 02-05-06 | GB |
| PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL | | | | | | | | | | | | | |
| 1 | Técnico de Euskera y Cultura | 1 | B | 2 | 16 | 21 | 12.858,48 | 100 | - | | 4.T.P | 31-12-94 | D |
| 2 | Oficial de Cometidos Múltiples | 1 | D | 9 | 10 | 15 | 11.757,60 | 100 | %25 | %2 | 2 | 31-12-00 | GE/CC B1 |
| 3 | Asistente Social | 1 | B | 2 | 14 | 19 | 4.787,40 | 43,99 | - | | 3 | 01-01-01 | G.L. Dp. |
| 4 | Bibliotecario/a | 1 | C | 7 | 9 | 14 | 2.616,24 | 27,76 | | | 3 | 02-05-06 | BS |

(1)
- *Berariazko merezimenduak.*

1.- Eginiko zerbitzuak:

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkartearen barruan: 0,020 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).
* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpo: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Herri-Administrazioan Administrazio Orokorreko Teknikari gisa edo antzeko lanposturen batean eginiko zerbitzuak: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,06 puntu gehienez).

2.- Prestakuntza-ikastaroak:

* HAEE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-kontuhartzailetzarekin zerikusia duten gaiei buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu (0,30 puntu gehienez).
* HAEE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-administrazioarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,05 puntu (0,20 puntu gehienez).

3.- Titulazioak:

* Zuzenbideko edo Ekonomi eta Enpresa Zientzietako dakotoretza titulua izatea: 0,5 puntu.
- Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:
* Eginiko zerbitzuak egin direneko udal-korporazioako idazkariak emandako jatorrizko ziurtapen bidez egiaztatuko dira.

* Ikastaroak, kasuak kasu, HAEEko edo eskola ofizialeko funtzionarioak edo agintariak emandako jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.
* Unibertsitate-tituluak izatea, behar bezala konpultsatutako jatorrizko agirien bidez.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko, 6/1989 Legean, Euskal Administrazio Publikoko Funtzionarioen Ordainsariei buruzko, uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuan, eta 343/1992 aurrekoa aldatzen duen Dekretuan, aurreikusten den egiturara egokitzapena egin ondoren ezarritako ordainsariak:

- Oinarrizko Soldata: Lanpostuari izendatutako legeari legeak ezartzen diona.
- Destinu Osagarria: Lanpostuari izendatutako mailari legeak ezartzen diona.
- Osagarri Espezifikoa: 207/1990 Dekretuan ezarritako egiturara egokitutakoaren arabera.

## 2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 02/0117 erabakia, urtarrilaren 17koa, Udaletxea, Ostatua eta Kultur Etxeko biomasa pellet-galdararen mantenimendu kontratua Sugaar enpresarekin bideratuz..

- 03/0117 erabakia, urtarrilaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren 2016ko abenduaren 12ko Agindua jarraituz, eskolan lanak egiteko diru-laguntza eskaera bideratuz.

- 04/0117 erabakia, urtarrilaren 17koa, San Bartolomeko baratzen erabiltzaileei dagokion erabilera tasa kobratuz.

- 05/0117 erabakia, urtarrilaren 19koa, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, gimnasioaren erabilipenaren ondoriozko tasaren likidazioa (abendua) bideratuz.

- 06/0117 erabakia, urtarrilaren 19koa, Ostatua eta Kasinoko alokairurengatik fakturak bideratuz (abendua).

- 07/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (ACCIONA).

- 08/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (GAS NATURAL).

- 09/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (NATURGAS).

- 010/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (ALPIQ).

- 011/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (GOIENER).

- 012/0117 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, Udal jabari publikoaren aprobetxamendua egiteagatik dagokion tasaren kobrantza bideratuz (ORANGE).

- 013/01117 erabakia, urtarrilaren 27koa, 2057 fakturen erlazioa onartuz, guztira 13.893,94 eurokoa.

- 014/01117 erabakia, urtarrilaren 27koa, 2031 fakturen erlazioa onartuz, guztira 9.321,08 eurokoa.

- 015/01117 erabakia, urtarrilaren 27koa, 2009 fakturen erlazioa onartuz, guztira 12.198,98 eurokoa.

- 016/01117 erabakia, urtarrilaren 30ekoa, 2077 fakturen erlazioa onartuz, guztira 17991,30 eurokoa.

- 017/01117 erabakia, urtarrilaren 30koa, ordainketen erlazioa onartuz, guztira 7.475,69 eurokoa.

- 018/01117 erabakia, urtarrilaren 31koa, ordainketen erlazioa onartuz, guztira 1.074,94 eurokoa.

- 019/01117 erabakia, urtarrilaren 31koa, ordainketen erlazioa onartuz, guztira 12.721,26 eurokoa.

- 020/01117 erabakia, urtarrilaren 31koa, ordainketen erlazioa onartuz, guztira 2.134,62 eurokoa.

**3.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), bailarako pilota eskolari buruzko aipamena egiten du. Zentzu horretan, bilkurakideak gaiari buruz hitz egiten dute.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ............... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan .................. zenbakitik ......................... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, .................. zenbakitik .......................... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017ko ....................k .......

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene .......... folios, numerados del ........................ al ................. en número de papel timbrado y del .................. al ....................... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ......... de ...................... de 2017.

**O.E./ VºBº**
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**